

BIZKAIA ANIZTASUNEN ALDE

Ikasgelan aniztasunak lantzen
irakasleei lagun egiteko gida



un
ETXEA

ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

© UN Etxea - UNESCOrako Euskal Herriko elkarte, 2022.

Egilea: Begoña Guzmán eta Eva Quiroga (UN Etxea)

UN Etxea

Isozaki Atea - Bizikidetasun plaza, Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala, Bilbo

Tel: +34 94 427 64 32

Kontaktua: info@unetxea.org

www.unetxea.org

Itzulpena: Bakun SL

Diseinua: Binari Comunicación.

Azaleko jatorrizko irudia: Iñigo Bidetxea.

Material honek eta Bizkaia aniztasunen alde proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza dute.

Lan hau Creative Commons lizentziaren baitan dago. Eskuduntza-Ez komertziala-Deribaturik gabe 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-ND 4.0) Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango duzu, baldintza hauek betez gero: Lanaren egiletza aitortu behar duzu. Ezin duzu lan hau helburu komertzialetarako erabili. Ezin duzu aldatu, eraldatu edo lan honetatik eratorritako lanik sortu. <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es>



AURKIBIDEA



- 5 **SARRERA**
- 6 **HELBURUAK ETA METODOLOGIA**
- 7 **1. SAIOA. Baliabide pedagogikoak**
- 8 **2. SAIOA. Toki-erakunde aliatuak**
- 9 **3. eta 4. SAIOAK. Nazioarteko egunak ospatzea**
- 10 **PROZESUAREN ETA EMAITZEN BERRI EMATEA**



SARRERA

Aniztasunak gure lurraldearen zati dira, eta kontuan hartu beharreko kultura- eta komunitate-bizitzako elementuak dira, gure udalerrriak integratzaileagoak eta jasangarriagoak izan daitezten.

Premisa horretatik abiatuta, *Bizkaia aniztasunen alde* proiektua sortu da. UN Etxea - UNESCOrako Euskal Herriko elkarteak sustatu du ekimena, eta horren helburua da aniztasunak egunez egun zaintzen dituzten pertsonak eta erakundeak baloratzea, giza eskubideen ikuspegitik; izan ere, garapen jasangarriaren eta berdintasun, bizikidetzeta eta bake balioen sustapenaren iturri dira.

Ikuspegi hori Nazio Batuek planteatu dute, Agenda 2030aren bidez, garapen jasangarrirako; horren helburu nagusietako bat *"pertsona guztien giza eskubideak errealitate bihurtzea"* da, agendaren hitzaurrean adierazten den bezala.

Alde horretatik, *Bizkaia aniztasunen alde* proiektuak berriaz laguntzen die garapen jasangarriaren hainbat helbururi (GJH), adibidez: hezkuntzari buruzko 4. GJH eta haren 4.7. helburua, garapen jasangarria sustatzea, besteak beste, giza eskubideen bidez, berdintasunaren bidez, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatuz eta kultura-aniztasuna baloratu; desberdintasunak murrizteko 10. GJH eta haren 10.3 helburua, aukera-berdintasuna bermatzeko eta lege, politika eta jardunbide diskriminatzaileak ezabatzeko; eta bakea, justizia eta instituzio sendoei buruzko 16. GJH eta haren 16.7 helburua, erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta ordezkatzaileak hartzea bermatzeko.

Hala, proiektua herritarren ekimen gisa sortu da, askotariko aniztasunak ezagutu eta antzemateko, forma guztietan eta testuinguru hurbilenetan. Horretarako, jarduera eta kanpainak antolatu dira hainbat gunetan.

Basauritik Bizkaiko lurralde osoraino, Getxotik pasatuta, proiektuak bizitza propioa hartu du eta errealitate sozial berriei erantzun die. Hasiera batean, kultura-aniztasunean oinarritu zen ekimena, baina garapenean aurrera egin ahala beste kontzeptu batzuetan sakonduz joan da, hala nola sexu- edo funtzio-aniztasunean, eta, bereziki, eskubideak urratuak dituzten edo gizartetik baztertuak dauden kolektiboetan. Hala ere, aniztasunek pertsona guztiak zeharkatzen gaituztelako ideiatik abiatzen gara, aniztasuna gure gizartearen egiturazko elementua baita. Gainera, ikuspegi intersektional batetik, aniztasun-forma desberdinak aldi berean gerta daitezke, hainbat eta hainbat kategoria edo tipologia sor ditzaketen ezaugarrien gurutzaketa gisa, eta horiek esanahi desberdina izango lukete gertatzen diren testuinguruarekin erlazionatuta.


2021ean, ordura arteko esperientziei eta materialei esker, ekimena ikasgeletara eraman zen, eta proiektuaren edukiak Bizkaiko ikastetxeekin landu ziren, gazteen artean premisa berberak landu zitezten.

Eskola erreproduktio sozialerako lekua da, baina baita harremanetarako modu berriak lantzeko, elkarreraginaren saiakuntzak egiteko, jokabideak birbideratzeko eta kultura-aniztasunaren aberastasuna ezagutzen ikasteko gunea ere. Elkarrekikotasun, berdintasun eta konfiantza harremanak lantzen saiatzeak, ordea, aniztasuna ikasteko eta aberasteko aukera bihur dezake. (Hevia, Ricardo, Kaluf F., Cecilia: Kultura-aniztasuna: irakaskuntza-presetakuntzarako eta ikasgelako lanerako materialak; 3. liburukia. UNESCO, 2005).

Hain zuzen ere, Garapen Jasangarrirako Agenda 2030en arabera, aldaketaren funtsezko eragileak dira gazteak, eta hezkuntza, aldiz, gaur egungo gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-krisien erantzunak sortuko dituen pentsamendu kritikoa eta burujabea bultzatzeko tresna.

"Munduaren egoera aldatzeko, lehenik eta behin hezkuntzaren egoera aldatu behar da" (Gazteriaren adierazpena hezkuntzaren eraldaketari buruz, 2022).

Begoña Guzmán eta Eva Quiroga
UN Etxea



HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Gida honen helburuak hauek dira:

- Aniztasunari buruzko prestakuntza-iturriak ematea irakasleei.
- Aniztasunetik eta aniztasunerantz begirada hezitzailea bultzatzea.
- Aniztasunei buruzko ezagutza zabaltzen laguntzea eta erreferentziako toki-erakundeak aurkeztea, irakasleek beren lan pedagogikoan haiekin lan egin ahal izan dezaten,
- Ikasleei laguntzea dituzten aniztasunak elkarriketa eta ikaskuntza kolektiborako aukera bihur daitezten.
- Eskolako ikaskuntzen egokitasuna, ekitatea eta kalitatea lortzen laguntzea.

Aniztasuna lantzeko, beharrezkoa da begirada aldatzea, eta horrek zera esan nahi du:

- a) Elkarrekin pentsatzeko erabakia hartzea. Eskolaren eginkizun nagusia pentsatzen duten herritarrak prestatzea da. Beraz, funtsezkoa da irakasleek pentsatzeko erabakia hartzea. Dena pentsatzearen aurka dagoenean, pentsatzeko auserdia behar da. Adimena eta emozioak, hau da, afektuen pentsamendua bereizteko tranpa hautsi behar da. Pentsatzea bizitzea eta bizitza berria sortzea da. Pentsatzen ikas daiteke.
- b) Elkarrekin lan egiteko erabakia hartzea, errealitatea aldatzen hasteko.
- c) Sentitzeko erabakia hartzea. Hezkuntza-sistemak zerbait galdu badu, "pertsone" da. Funtsezkoa da irakasleek eta eskolak sentimenduen, emozioen, samurtasunaren eta ulertzearen adierazpena berreskuratzea, humanizazio-prozesuak errealak izan daitezten. (Rogerio, Julio: Aniztasunarekin lan egitea desberdintasunak hausteko. Gogoeta-jardunaldia. Valentzia, Espainia, 2001).

Jarraian datozen materialek Bizkaia aniztasunen alde proiektua Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko geletara eramateko proposamen metodologikoa egiten laguntzen dute. Proiektua gauzatu den urteetan, hainbat tresna prestatu dira sexu-, funtzio- eta kultura-aniztasunari buruz sentsibilizatzeko eta hausnarketa sustatzeko. Gazteenengan iristeko foku berezi batekin, podcast eta ikus-entzunezko materialak egin dira, bai eta jarduera zehatzak dituen unitate didaktiko bat ere, taldean lan egiteko.



1. SAIOA

BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

Baliabide pedagogikoak erreferentzia-edukiak dira, ikasgelan elkar ezagutu, errekonozitzeko eta hausnartzeko lehen saioa garatzeko. 55 minutuan, ikasleen artean honako alderdi hauek sustatu behar dira: entzutea, kontzeptuak barneratzea, elkarrizketa, eztabaida eta diskriminazio eta estereotipoen aurreko espiritu kritikoa.

UNITATE DIDAKTIKOA: "BIZKAIA ANIZTASUNEN ALDE. ANIZTASUNEN INKLUSIOA IKASGELAN".

Unitate didaktiko hau sortu dugu aurreiritziak ezabatzeko eta berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko, sexu-orientazioa, sexu- edo genero-identitatea edo beste aniztasun batzuei dagokienez (funtzionala, kulturala, erlijioso, etnikoa, linguistikoa eta abar).




<https://www.unescoetxea.org/eu/portfolio-item/unitate-didaktikoa-bizkaia-aniztasunen-alde/>

BIZKAIA ANIZTASUNEN ALDE PODCASTA

Aniztasunei buruzko elkarrizketa, testigantza eta hizketaz betetako podcasta. Horien protagonista izango dira aniztasunak ikusarazten eta pertsona guztien giza eskubideak betetzeko aldarrikapenean eguneroko lan egiten duten hainbat pertsona.

Podcasta irekia denez, horri esker eduki berriez hornitzen jarraitu dezakezu. Geletatik entzutera eta sortzera gonbidatzen zaituztegu. Zeuen ahotsa entzunarazteko bitartekoa izan daiteke hori. UN Etxearekin

harremanetan jarri besterik ez duzue (nfo@unetxea.org Gaia: Bizkaia aniztasunen alde podcasta), zuen edukiak partekatu eta lankidetzan jardun dezagun.



https://www.ivoox.com/podcast-bizkaia-diversidades-aniztasunen-alde_sq_f1925631_1.html

GETXO ANIZTASUNEN ALDE DOKUMENTALA ETA HAREN PROTAGONISTEI EGINDAKO ELKARRIZKETAK

Moviltik elkartarekin elkarlanean, dokumentala egin, eta honako pertsona hauen testigantzak jaso ditugu: Cony Carranza (hezitzaile feminista eta Berdintasunaren aldeko 2019ko Emakunde Saria), Bea Sever (Naizen-Nafarroako eta EAeko Adingabe Transsexualen Familien Elkarteko bozeramailea), Simbarek Mohamed (gizarte-integratzailea), Asier Paredes (kultura-ekintzailea) eta Iñigo Iraultza (aktorea eta Olenzero Munduan proiektuaren zuzendaria).

Gainera, elkarrizketa sakonagoak egin zitzaizkien protagonista guztiei:



[Getxo por las diversidades](#) | [Getxo aniztasunen alde](#)

2. SAIOA

TOKI-ERAKUNDE ALIATUAK

Ikasturtean zehar hitzaldiak eta solasaldiak antolatzeari proposatzen da, gure errealitateak hurbil dauden pertsonen testigantzekin, aniztasunak ikusarazte aldera, baita beren eskubideen urraketak eta egunerokoa jasaten dituzten aurreiritziak ikusarazte ere. Helburua ikasleen artean entzutea eta empatia sustatzea da, eta ikasleak benetako eta hurbileko testigantzen aurrean jartzea, haiekin hitz egin eta esperientziak truka ditzaten.

Testigantzak 2. saioa prestatzeko edukiak izan daitezke: Entzutea eta empatia.

Alde horretatik, Bizkaian sentsibilizazioa eta aniztasunean oinarritutako hezkuntza lantzen duten gizarte-erakunde batzuk proposatzen dira jarraian. Adibideak baino ez dira; askoz gehiago daude. Ikastetxei proposatzen diegu gida honekin lan egin dezatela eta gehitu ditzatela haien inguruko beste zenbait erakunde aliatu, baita haien hezkuntza-komunitaterako erreferentzia diren pertsonak ere.

EMAKUMEEN AHOTSA

Berdintasun-printzipioan oinarritutako elkarteak, genero-indarkeriarik gabeko eta bazterketa-arriskuan dauden emakumerik gabeko gizarte baterantz aurrera egiteko.

www.mujeresconvoz.es

EMAKUMEAK ANIZTASUNEAN

Emakumeen giza eskubideak defendatzeko elkarteak, emakumeen kolorea, erlijioa edo jaioterria kontuan hartu gabe.

www.mujeresenladiversidad.org/?lang=eu

AMUGE

EAEko emakume ijitoak sustatu eta ahalduntzeko kultura arteko elkarteak.

www.amuge.org

BIDAYA ELKARTEA

Erreferentzia-puntua Euskal Herrian bizi diren emakume musulmanentzat eta Islamaren kidekoentzat.

www.bidaya.org

NAIZEN

Nafarroako eta EAEko Adingabe Transexualen Familien Elkarteak.

www.naizen.eus/eu/

ALDARTE

ALDARTE elkarteak sexu- eta genero-aniztasunaren esparruan lan egiten du, eta, horretarako, gizarteari eskaintzen zaizkion arreta, hezkuntza eta sentsibilizazio baliabideak jartzen ditu martxan, LGTBI kolektiboari zuzendutako intolerantzia eta aurreiritzi sozialak sortzen dituzten gatazkak konpontzeko konponbide positiboak sortze aldera.

www.aldarte.org/es/quienessomos.asp

AMESTEN ELKARTEA

Bizkaiko lurraldean dibertsitate funtzionala duten pertsonak gizarteratzearen alde lan egiten duen elkarteak.

www.amesten.org

BIZKAIAGARA

Herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta komunitate-lanerako gunea da, lurraldeko pertsona, erakunde eta erakundeen zerbitzura.

www.bizkaiagara.eus/es/bizkaiagara/quienes-somos

3S BIZKAIA DIREKTORIOA

Gizarte zibiletik sortutako erakundeak, kudeaketa- eta independentzia-autonomiarekin, irabazi-asmorik gabekoak, borondatezko partaidetza-mailaren bat dutenak eta, zentzu zabalean, esku-hartze sozialera bideratuta daudenak. Horrek esan nahi du gizarte-ingurunea hobetzea dutela helburu, askotariko esparruetatik (gizarte-ekintza, kultura, garapenerako nazioarteko lankidetzak, giza eskubideak, ingurumena, osasuna, etab.), Bizkaian eta Bizkaitik.

www.3seuskadi.eus/que-hacemos/recursos/directorio/

3. ETA 4. SAIOAK

NAZIOARTEKO EGUNAK

OSPATZEA

Efemerideak eta nazioarteko egunak aukera bikaina dira ikasleak eta hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzeko eta komunikabideen arreta erakartzeko, iritzi publikoari ebatzi gabeko arazoak daudela jakinaraz diezaioten. Horregatik, Nazio Batuek oro har aldarrikatzen dituzten nazioarteko egunen inguruko jarduerak prestatzea gomendatzen dugu.

Martxoaren 21a

[Arraza-bereizkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna.](#)

Maiatzaren 21a

[Elkarrizketarako eta Garapenerako Kultura Aniztasunaren Nazioarteko Eguna.](#)

Apirilaren 8a

[Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna.](#)

Maiatzaren 17a

[Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna.](#)

Ekainaren 20a

[Errefuxiatuen Mundu Eguna.](#)

Ekainaren 28a

[LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna.](#)

Abenduaren 3a

[Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna.](#)

Abenduaren 18a

[Pertsona Migratzailearen Nazioarteko Eguna.](#)

Abenduaren 10a

[Giza Eskubideen Eguna.](#)

Gainera, sexu-aniztasunean sakontzeko, UN Etxearen *Gida didaktikoa*. *LGTBI+ komunitatearen eskubideak hilabetez hilabete* erabiltzea proposatzen dizuegu. LGTBI+ kolektiboen jaiak eta borrokak balioetsi eta ikusarazten ditu. Fitxa didaktikoen edukia Zaira García Dafontek egin du, eta irudiak Teresa Castrorenak dira; zehazki, bere pertsonaia ezagun bat dakarkigu, LesbiANITA, eta, oraingoan, baita haren lagun-taldea ere: LGTB+kuadrilla.

<https://www.unescoetxea.org/eu/portfolio-item/guia-didactica-derechos-de-la-comunidad-lgtbi-mes-a-mes/>

[Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Egunean](#), ikasurtearen lehen hiruhilekoan aniztasunen inguruan egindako lana ikastetxean ikusgai jarri ahal izango da.

Idea-jasa dinamikak egingo dira, ekintza zehatzak identifikatzeko:

- Hurbileko testuinguruan, testigantza eman dezaketen beste pertsona/gizarte-erakunde batzuk identifikatzea: haiekin harremanetan jartzea, elkarrizketa bat prestatzea, eta, Giza Eskubideen Eguna dela-eta, ikastetxean hitzaldi bat ematera gonbidatzea.
- Bizkaia aniztasunen alde podcasta eduki berriekin elikatzea, hala nola elkarrizketak, gogoetak, aniztasunari buruzko kontakizunak, etab.
- Ikus-entzunezko edukia mugikorrekin egitea, aniztasunak ikusarazteko eta web orrian eta ikastetxeko sare sozialetan partekatzeke.
- Aniztasunei buruzko lankidetzako horma-irudia egitea eta hezkuntza-komunitate osoa parte hartzera gonbidatzea.

PROZESUAREN ETA EMAITZEN BERRI EMATEA

Konpromisoa, balioak eta gauzatutako ekintzak publikoki komunikatu behar dira. Komunikatzeko moduak ikastetxearen atzean dauden berdintasun-, aniztasun- eta elkarrizketa-printzipioak transmititzen ditu.

Horretarako honako hau proposatzen da:

- Komunikazio-plan koherente bat garatzea, ikasgeletan lantzen ari diren aniztasunaren ikuspegia barne hartuko duena.
- Ikastetxeak aniztasuna eta elkarrizketa sustatzeko egindako ekintzak ikusaraztea.
- Komunikazio-kanpainetan eta egindako ekintza guztietan aniztasunaren mezua azpimarratzea.
- Gizarte entitateekin lankidetzan egindako lana ikusaraztea.
- Hezkuntza-komunitateko aniztasunak islatzen dituzten irudiak erabiltzea txosten eta komunikazio publikoetan, estereotipoetan erori gabe.
- Sare sozialetako komunikazio guztiei #bizkaiaaniztasunen alde traola gehitu diezaiekegu.

